



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2008-03-11

VIURTEA 1.383.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

EAJ irabazle, PSE-EEren igoera eta abstentzio handia eskualdean

TOLOSALDEA Irabazi arren, 2.501 bozka gutxiago ditu; PSE-EEK 1.331 bozka gehiago, eta abstentzioa %55,5ekoa

LEITZALDEA Leitzan bozkatuena NaBai izan da 593 botorekin; 1.513 herritarrek ez zuten bozka eman 2-3



N. GARZIA

AINARA RODA ASKETA ABESBATZAKO ZUZENDARIA

«Neskak bai, baina mutil gutxiegi ditugu abesbatzan»

LEITZA Pasa den urteko urrian hartu zuen Leitzako koruaren zuzendaritza Ainara Rodak; urte asko egin ditu abeslari bezala 7

Txalaparta eta talo tailerrekin hasi dute Euskal Astea Ernio-bea Institutuan

AIZTONGO Ikasleei zuzenduriko hainbat ekitaldi antolatu dituzte egunotarako 6



Institutuko gazteak txalaparta jotzen. I. GARCIA

txokoa **h**


sarrera pareta

zozketan
deitu eta eskuratu

Martxoak 14, ostirala
20:30ean
Tolosako Leidorren

Tolosako Orfeoia
Orfeón de Tolosa

aste santuko Kontzertua



EAJ bozkatuena, PSE-EE nabarmen igo eta abstentzio maila handia izan da

Politika » Espainiako Gorteetarako Hauteskundeetan EAJk 5.483 bozka izan ditu, eta duela lau urte 7.984.


A. IMAZ - N. URBIZU

Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak egin ziren herenegun bi eskualdeetan. Alderdiek jasotako bozkek kontuan hartuta, EAJk lortu zituen bozka gehien, baina 2004ko hauteskuendeekin alderatuz, 2.501 bozka gutxiago lortu zituen. PSE-EEK 4.566 bozka lortu zituen Tolosaldean eta Leitzaldean, bigarren alderdi bozkatuena izan zelarik.

Espainiako Gorteetarako Hauteskuendeetan parte-hartzea ez zen handia izan. «Abstentzio aktiboa» nabaritu egin zen, eta 21.436 lagunek ez bozkatzea aukeratu zuten, erroldatutako en %55,16ak.

«Salbuespen egoera salatuz» Anoetako ikastolan «salbuespen egoera salatze»ko», silikona jarri zuten sarrailetan, jendea bozkatzera sar ez zedin, ximaurra ere bota zuten sarrean. Ibarako udaltxean ere fuela jaurti zuten.


TOLOSALDEA 2008




- %55,13 ■ ABSTENTZIOA
- %15,17 ■ EAJ
- %12,07 ■ PSE-EE
- %5 ■ EA
- %4,27 ■ PP
- %3,3 ■ ARALAR
- %1,96 ■ EB-BERDEAK
- %0,82 ■ BESTEAK
- %2,18 ■ BALIOGABEAK

Portzentziak erroldaren arabera eginda daude


LEITZA 2008




ARESO 2008



TOLOSALDEA 2004



TOLOSALDEA 2008



Grafiko hauek jasotako baliozko botuen arabera dira

» ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK

2008 (2004)	Errolda (2008)	EAJ	EA	ARALAR	PSE-EE/PSN	PP/UPN	IU-EB	NABAI	BESTEAK	ABST.
Abaltzisketa	245	46 (57)	7 (28)	10 (19)	5 (0)	1 (4)	7 (4)	- (-)	2 (0)	164 (84)
Aduna	293	31 (54)	16 (54)	10 (26)	6 (4)	0 (1)	9 (5)	- (-)	0 (0)	221 (69)
Albiztur	258	81 (92)	12 (22)	8 (4)	16 (7)	2 (400)	1 (447)	- (-)	0 (1)	131 (89)
Alegia	1.358	177 (285)	92 (176)	48 (78)	81 (76)	42 (63)	24 (58)	- (-)	7 (6)	861 (399)
Alkiza	273	52 (88)	13 (25)	28 (15)	5 (0)	1 (11)	7 (11)	- (-)	4 (0)	160 (76)
Altzo	298	56 (75)	7 (18)	18 (29)	7 (0)	1 (6)	4 (9)	- (-)	1 (8)	197 (68)
Amezketza	775	96 (202)	34 (63)	29 (49)	17 (15)	13 (7)	12 (5)	- (-)	10 (2)	557 (293)
Anoeta	1.401	151 (327)	37 (105)	32 (65)	187 (132)	60 (15)	17 (5)	- (-)	1 (1)	890 (392)
Areso	242	- (-)	- (-)	- (-)	18 (6)	37 (4)	- (4)	59 (64)	9 (2)	124 (71)
Asteasu	1.126	141 (179)	136 (181)	25 (58)	72 (48)	23 (38)	27 (23)	- (-)	0 (0)	680 (370)
Baliarrain	81	8 (14)	- (5)	1 (7)	2 (0)	0 (27)	0 (29)	- (-)	3 (1)	68 (23)
Belauntza	248	22 (43)	15 (21)	9 (18)	9 (7)	4 (78)	0 (490)	- (-)	2 (1)	182 (106)
Berastegi	805	155 (200)	92 (153)	25 (61)	45 (16)	7 (6)	9 (15)	- (-)	6 (1)	457 (235)
Berrobi	468	71 (118)	16 (39)	14 (26)	29 (16)	29 (11)	10 (2)	- (-)	1 (0)	288 (133)
Bidania-Goiatz	374	56 (60)	37 (89)	14 (5)	13 (3)	11 (0)	2 (4)	- (-)	0 (0)	233 (111)
Elduain	192	25 (38)	13 (20)	0 (9)	3 (1)	1 (6)	0 (5)	- (-)	1 (0)	146 (52)
Gaztelu	145	30 (34)	2 (5)	5 (3)	5 (2)	3 (80)	4 (45)	- (-)	1 (0)	95 (35)
Hernialde	272	48 (73)	7 (18)	10 (20)	11 (8)	7 (5)	4 (6)	- (-)	1 (0)	173 (94)
Ibarra	3.509	443 (695)	208 (306)	106 (160)	574 (142)	142 (22)	62 (20)	- (-)	24 (14)	1.905 (1.101)
Ikaztegieta	359	68 (92)	8 (20)	10 (19)	22 (8)	7 (0)	3 (2)	- (-)	6 (0)	231 (80)
Irura	1020	169 (197)	43 (81)	49 (56)	110 (62)	33 (12)	14 (7)	- (-)	8 (4)	564 (269)
Larraul	169	11 (32)	6 (10)	11 (8)	9 (2)	0 (4)	5 (4)	- (-)	1 (0)	124 (52)
Leaburu	314	51 (66)	6 (17)	7 (17)	4 (2)	5 (4)	1 (4)	- (-)	1 (1)	231 (70)
Leitza	2.397	- (-)	- (-)	- (-)	185 (151)	249 (282)	10 (34)	534 (795)	25 (29)	1.389 (744)
Lizartza	505	43 (100)	6 (35)	9 (12)	3 (6)	20 (4)	3 (4)	- (-)	1 (0)	417 (140)
Orendain	147	28 (30)	10 (25)	3 (4)	0 (0)	0 (4)	3 (4)	- (-)	0 (0)	101 (41)
Orexa	95	1 (7)	0 (1)	0 (2)	0 (0)	0 (4)	0 (4)	- (-)	0 (0)	93 (7)
Tolosa	14.419	2.600 (3.439)	744 (1.318)	557 (782)	2.085 (1.413)	759 (4)	360 (4)	- (-)	146 (87)	6.865 (4.280)
Villabona	4.544	559 (957)	176 (374)	149 (224)	666 (483)	257 (4)	93 (4)	- (-)	42 (26)	2.540 (1.402)
Zizurkil	2.192	264 (430)	65 (145)	34 (102)	376 (312)	118 (4)	28 (4)	- (-)	20 (14)	1.261 (690)
Tolosaldea	36.133	5.483 (7.984)	1.808 (3.348)	1.221 (1.898)	4.363 (3.072)	1.546 (1.912)	709 (1.603)	- (-)	297 (167)	19.923 (11.690)
Leitzaldea	2.639 (2.728)	- (-)	- (-)	- (-)	203 (167)	286 (312)	12 (35)	593 (859)	34 (31)	1.513 (929)
Gipuzkoa	576.692 (564.045)	76.891 (114.225)	25.352 (42.811)	17.193 (22.212)	125.659 (97.206)	46.982 (55.857)	15.656 (28.470)	- (-)	2.556 (1.706)	233.378 (159.697)
Nafarroa	460.514 (460.493)	- (-)	- (-)	- (-)	115.837 (113.906)	131.618 (127.653)	11.035 (19.899)	62.073 (61.045)	14.433 (11.432)	123.168 (110.842)
Gipuzkoa (Diputatuak)	6 (6)	2 (2)	0 (1)	0 (0)	3 (2)	1 (1)	0 (0)	- (-)	0 (0)	0 (0)
Nafarroa (Diputatuak)	5 (5)	- (-)	- (-)	- (-)	2 (2)	2 (2)	- (-)	1 (1)	0 (0)	0 (0)

«Hauteskunde hauek bi alderdiren artean oso polarizatuak izan dira»

BEGOÑA TOLOSA » EAJ

Begoña Tolosak hauteskunde ondorengo balorazioa egin du EAJren izenean. Lehenik abstentzioaren inguruan hitz egin du, hauteskunde gaueko datuak kontuan hartuta eta hausnarketa sakonagoak egin behar dituztela aipatuz, «guk erabili genituen datuekin, abstentzioa gutxi gora behera %47a zen Tolosan, beraz, zerbait altua baina Euskadiko eta Gipuzkoako mailaren antzekoa».

Abstentzioaz gain, polarizazioaz ere hitz egin zuen Tolosak, «hauteskunde hauek bi alderdiren artean oso polarizatuak izan dira. Beste alderdiak ez ginen existitzen, bai telebista edo aldizkari

guztietan PSOE eta PP bakarrik existituko balira bezala izan da. Bestalde, azken ostegunean Arrasaten gertatuak, PSOEren zinegotzi ohiaren hilketak, sinpatia efektu bat sortu zuen PSOErengan».

Hauteskundeetako emaitzen inguruan hausnarketa sakonik oraindik ez dutela egin onartuta eta «gaitetik» aztertuz, Begoña Tolosak abstentzioa ere aipatu zuen, «esku artean genituen zenbakiekin, duela 4 urte bozkatu zuen jendea kontatuz eta atzo bozkatu zuen jendearekin, gutxi gora behera 1.000 lagun tolosar ez ziren mahaietara azaldu. Ez dugu pentsatzen 1.000 lagun joan direla ez-



HITZA

ker abertzalearekin batera. Lagun hauek nazkatuta daudela pentsatzen dugu, egoera hau ikusiaz eta ilusioa galdurik. Ez dugu mahai bakoitzean gertatua aztertzeke denborarik izan oraindik».

EAJren jeitsieraren inguruan, «tipoa mantendu» dutela aipatu zuen Tolosak, «datuak nahiko txukunak izan direla» aipatuz, «lehen aipatutako efektu hori eta hauteskundeak oso polarizatuak izan direla» kontuan hartuta. «Ez gaude ospakizun handietarako baina gauza nola izan den ikusita ondo gaude. Denbora pasa beharko da hausnarketa sakonagoa egiteko, urak pixka bat baretu arte».

» BESTEAK



Anjel Yañez

PP

«Asko poztzen naiz PSOEk lortutako garaipenarekin»

«Asko poztzen naiz PSOEk lortutako garaipenarekin, gure lanarekin ere pozik, momentu gogorretan irauteko doia erakutsi dugu».



«Autonomikoetatik emaitzak hobetu ditugu»

Inaki Irazabalbeitia

ARALAR

«Alde batetik abstentzioa adierazgarria izan da. Bestetik erabakitzeke eskubidearen alde egin dugun indarren artean Aralar izan da orain dela 4 urteko emaitzen inguruan ibili den bakarra, eta azkeneke autonomikoetik emaitzak hobetu egin ditugu gainera».

«Tolosan PSE-EEk lortu duen bozka kopurua historikoa eta ikusgarria da»

OSCAR RENEDO » PSE-EE

Oscar Renedok hauteskunde inguruko balorazioa egin baino lehen, ETAre azken atentatuan hildako Isaias Carrasco oroitu nahi izan du, «terrorismoaren biktime guztiarekin batera. Gustura gaude hauteskundeetako emaitzarekin baina garaipena ero eta basati horiek zikindu egin dute».

Eskualdean izandako abstentzio altuaren inguruan, herri txikietan beldurra egon delasalatu du Renedok, «Tolosaldean askatasun gehiagorekin bozkatea dagoen lekuetan, emaitza zein izan den argia izan da. Herri txikietan oraindik beldurragusia da, bozka ema-

terako garaian bai baitakizu mañaen dagoena zure bizilaguna dela edo bakoitik begira dagoena zergatik dagoen begira, horregatik jende asko ez da joan bozkatzera. Hori gertatu da eta kasu zehatzen jakitun gara».

PSE-EEren emaitzen inguruan, lortutako bozka historikotzat jo ditu PSE-EEren Tolosaldeko bozeramaleak, «Tolosan guk lortu ditugun emaitzak historikoa eta ikusgarriak izan dira».

EAJren jeitsieraren inguruan argi hitz egin nahi izan du Oscar Renedok, «argiesanda EAJk Tolosaldean eta Euskadi osoan kolpe



HITZA

izugarria hartu du. Hausnarketa egin behar duela uste dugu. Bere eslogan horretan pentsatu beharko luke eta galdera horri buelta eman, gu Euskadin bizi gara baina non bizi dira bereaiek?».

Hauteskunde hauetako emaitzak jarraipena izatea espero du Renedok, «azken hauteskundeetatik goruntza gatoz eta agian porzentaia batean influentzia izan du bi alderdi nagusien arteko lehiak, azken finean aukera errealko gobernatzeko bi alderdi hauek dituztelako. Baina esan bezala, azken autonomikoetan Gipuzkoan lehen indarra izan ginen».



«Beldur ikaragarria sartu da gizartean»

Antton Karrera

EZKER BATUA

«Izugarriko polarizazioa egon da kanpaina guztian, hau bi partiduk gidatu behar dutela esanaz. Ondorioz beldur ikaragarria sartu da gizarte guztian, PPK irabazten baldin bada hemengo egoera aldatuko duela ustez, Ezker Batukoak bakarrik ez, beste partiduetakoak ere Zapatero bozkatzera joan dira».

«Milaka eta milaka euskal herritarrei ez zaie utzi nahi zuten bozka ematen»

HEKTOR ESPIN » Ezker abertzalea

Ezker abertzalearen balorazioa Hektor Espin tolosarrak egin zuen atzokoan, «hauteskunde hauek inolaz ere demokratikoak ez direla izan» salatzeke lehenik eta behin; «milaka eta milaka euskal herritarrei ez zaie utzi nahi zuten bozka ematen alderdi abertzaleen ilegaltzaioa dela eta. Horren aurrean, ezker abertzaleak abstentzio aktiborako deia egin zuen».

Eskualdean izandako emaitzak «oso positibotzat» jo zituen: «Tolosan adibidez 18,5 puntu igo da abstentzioa 2004. urtetik, hori bozketara pasako bagenu, 2.700 bozka inguru esan nahiko luke eta

ondorioz ezker abertzalea lehen indar politikoa izango litzateke». Abstentzioa eskatzean jarritako helburuak bete dituztela ere onartu zuen Hektor Espinek; «alde batetik estatuari stop esatea, errepreseiari eta salbuespen egoerari stop esatea eta batez ere eta garrantzitsuena etorkizunari begira, iruzurrari ezetz esatea, hau da, herri honi orain dela 30 urte egin zitzaion iruzurraren errepikapenari atek istea».

EAJk izan duen jeitsiera «oso nabarmena» izan dela aipatu zuen, «ez bakarrik Tolosan edo eskualdean, Euskal Herri osoan baiziki».



HITZA

Alde batetik «iruzur raren errepikapenarekin» lotu zuen Espinek jeitsiera hau. «Jendeak badaki EAJk eta beste alderdi batzuk 30 urte damatela Madrilan, eta horrek ez duela herri honen sakoneko arazoak konpontzeko balio izan. EAJk esaten zuenena ni Euskadin bizi naiz eta zu non bizi zara, euskal herritarrek Euskal Herrian bizi direla erantzun diote, eta ez EAJren Euskadi horretan. Bestalde, azken bake prozesuan EAJk izandako jarrera jendeak zigortu egin duela uste dut. Posizio abertzaleen utzikeria egin du, PSOEren jarraitzeile zintzo bilakatu».



«Esnatzen gara edo jai dugu abertzaleok»

Andoni Iturzaeta

EA

«Garaile bat egon baldin bada PSOE izan da, beste guztiak gaitzaileak izan gara. Abertzaleatasuna Tolosa baino gehiago Euskal Herri mailan, oso jota ateraga. Orain arte bezala zatikatuta jarraitzen badugu, hemendik 30 urtetara alderdi karlista bezala bukatuko dugu. Esnatzen gara edo jai dugu».

Elkartasuna » Tolosako Kultur Etxean egongo da; Nikaraguako heziketa proiektu bat laguntzeko izango da bildutako dirua.

ERREDAKZIOA

Gaur zabalduko ditu ateak Tolosako Kultur Etxean Amaroazko Auzo Elkartek urtero antolatzen duen elkartasunezko Merkatu Txikiak. Igandera arte, hau da, hilaren 16ra arte egongo da irekita, astegunetan 16:00etatik 20:00etara, larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, eta igandean 10:00etatik 14:00etara.

Nikaraguaren alde

Merkatu Txikian biltzen duten diruarekin Amaroazko Auzo Elkartek Nikaraguako heziketa proiektu bat lagunduko du. Hain zuzen ere, Nikaraguako zonalderik txiroenean, Malpaisillon, *Xochilt Acalt* izeneko Emakume Antolatuen Zentroa garatzen eta bultzatzen ari den proiektua da diruz lagundu nahi dutena.

Proiektu hori urtetik urtera ari da bere fruituak ematen eta oraingo honetan 20 emakumerentzako beka edo finantzabideak lortu nahi dira. Emakume horiek tolosarren laguntza eta elkartasunari esker ikasketak prozesu baten barruan daude sartuta, batzuk alfabetatzen, beste batzuk lehen mailako ikasketak egiten eta beste-

Amarozko Auzo Elkartek antolatuta, Merkatu Txikia zabalik, igandera arte



Ezkerrean, atzo eguerdian Kultur Etxean antolatzaileak Merkatu Txikia prestatzen. Eskuinean, Nikaraguako emakumeak formazioa jasotzen. I. T./HITZA



ak bigarren mailakoak, eta aurten Albaitaritzako Goi Mailako Teknikari ikasketak egingo dituzte.

Zentro horretako garapen prozesuan sartuta dauden emakume hauek askok, proiektu honi esker, euren egoera erabat aldatu ahal izan dute, izan ere, lehen, lurrik gabeko nekazaritza jardariak ziren eta beren soldata uzta sasoiari lotuta zeukaten; orain, aldiz, ekoizleak dira, produktu desberdi-

nak ekoizten dituzte, eta euren produkzioko lursailen jabe bihurtu dira; are gehiago, abeltzaintzan ere sartu ahal izan dute emakume hauek proiektu honi esker.

Nikaraguako emakumeen mezua

Amarozko Auzo Elkartekoei idatzi diete Nikaraguako emakumeek euren asmoak eta helburuak azaltzeko. Ondorengo diote, besteak

beste: «Adiskideok, garrantzizkoa da zuek haxe ulertzea: gu, emakumeok, garapenaren alde gaude, gure gaitasunak eta gure indarrak oinarri ditugula. Guztiz alde batera utzita asistentzia izaera, garapenak besterik ez ditu eraldatuko mundu honetatik baztertuta dauden herriak.»

Aurten 20 emakume horiek egin behar dituzten ikasketen gastuak 7.136 dolarrean iristen da,

6.000 euro, gutxi gorabehera. Denon artean lortzeko moduko den diru kopurua, hain justu.

Laguntzeko bide ugari

Merkatu Txikian dagoen material erositik, beraz, Nikaraguako proiektu honi lagundu ahaliko diogu. Honetatik gain, diruz ere lagundu daiteke Kutxako kontu korronte zerbaki honen bidez: 2101 0081 15012441 0788.

Zurea da hitza info

«Euskaldunok lapurtzen ere badakigu»

TOLOSALDEKO HERRITAR BAT

Kontatu behar dudun hau ez zait niri bakarrik gertatu, beraz, adi.

Lanetik etxera nindoala, bizkaieraz hitz egiten zuen mutil gazte bat gerturatu zitzaidan eta erdi malkotan Anoetako lantegi batean praktikak egiten zegoela esan zidan. Lanetik ateratakoan boltsarekin zer egin zuen ez zekiela eta ez

zuela ezer etxera itzultzeko esan zidan.

Donostiara joateko eta bertan etxera itzultzeko autobuserako dirua behar zuen. Mutil gaixoa! Dirua utzi nion eta hurrengo egunean angaratu ginela dirua itzultzeko esan zidan nire telefono zenbakia hartuz. Asmatu zer gertatu zen: ez zuela deitu, noski. Bere kontakizunari sinesgarritasuna emateko

bere bizitzaz, familia... hitz egin zidan. Eta nik dena sinestu nuen.

Hau irakurri ondoren ezezagun batinolatan utzi nion dirua pentsatuko duzue. Bada, arrazoia oso sinplea da: laguntza behar zuen eta nik laguntza hori eskaini nion.

Amaitzeko, gauzatxo bat esan nahiko nioke laguntza eske dabilen mutil honi: nire kontzientzia oso lasai dago, eta zurea?

Laburrak

Bihar goizean argindarra moztuta, Pedro de Tolosan


TOLOSA » Tolargi instalazioetan hobekuntza eta mantentimendu lanak ari da egiten, eta bihar, 08:20etik 11:40era Pedro de Tolosa kaleko 5 eta 7 zenbakietan argindarra moztuko dute.

Garizumako hitzaldiak Santa Maria parrokian

TOLOSA » Ostirala bitarte Garizumako hitzaldiak izango dira Santa Maria parrokian. *Berri ona bizi eta iragarri gaur egun gaia* 16:00etan eta 20:00etan jorratuko du Imanol Aldaregiak.

Laskorain ikastolaren aurkezpen saioa, bihar

TOLOSA » Laskorain ikastolaren aurkezpen saioa egingo dute bihar, 19:00etan, Usabaleko egoitzan. Saio hau datorren ikasturteari begira, beraien seme-alabak DBHn matrikulatzeko informazioa jaso nahi duten guraso berriei zuzendua dago. Bestalde, etzi, ostegunean, 19:00etan, Laskorain ikastola antolatuta *Gure seme-alabek heziketa osasuntsua izan dezaten...* hitzaldia emango du Beatriz Ezeizak Usabalgo Areto nagusian. 0-3 urte bitarteko seme-alabak dituzten guraso guztiei zuzendua dago hitzaldia.



Bete itzazu urteak hitzarekin

Harpidetza eskaintza berezia

HITZAren harpidedun egin zaitez martxoan, eta bi opari hauetako bat jasoko duzu.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA



Kadeteen mailan, Tolosaldeko Arraun Klubeak izan ziren garaile Zumaiaiko saioan. HITZA

Kadete eta senior mailako mutilak garaile, Zumaian

Arrauna » Zumaiaiko uretan ibili ziren larunbatean Tolosaldeko Arraun Klubeak; Gipuzkoako Ligaren baitan.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Batel Ligako bosgarren proba jokatu zen larunbatean. Ekitaldia Zumaiaiko kostaren inguruan gauzatu zuten. Bertan izan ziren Tolosaldeko Arraun Klubeak arraunlariak, eta bi garaipen erdiesteak lortu zuten. Kadeteen mailan, A taldeko mutilek irabazi zituzten estropadak hiru minutu eta hamar minutu inguruko denborarekin.

Sanpedrotarrek baino bederatzigutu gutu behar izan zituzten.

Seniorretan ere eskualdekoak izan ziren garaile, hiru minutu eta hamazazpi segundoko denborarekin. T.A.Keko gainontzeko taldeak ere ez ziren gaizki ibili. Nesketan, infantil-kadete mailan, Tolosaldea Akoa laugarren geratu ziren, Ckoak, zazpigarren eta Bkoak zortzigarren.

Infantiletan, mutilek bost eta zazpigarren postuak erdietsi zituzten, hurrenez hurren. Bestalde, kadeteetan, lehen aipatu bezalako eskualdekoak izan ziren garaile. Norgehiagoka berean, B taldekoak bosgarren iritsi ziren helmugara,

eta Ckoak, hamargarren. Nesketan, jubenil-seniorretan, Tolosaldea Akoa bigarren geratu ziren, eta Bkoak laugarren. Azkenik, mutiletan, jubenilek hirugarren postua eskuratu zuten.

Oriotarrek falta

Kadete eta jubeniletan, Oriokoek ez zuten parte hartu. Beraz, Ligako puntuazioan atzera geratu dira. Orion arraunketa olimpiako jardunaldia izan zen, eta bertan izan ziren arraunlariak. Izan ere, badi-rudi, elkarteak modalitate hauek jorratu nahi dituela eta *Outriggers*-etako estropada guztietan hartuko dute parte. Ondorioz, oraingoz batelak alde batera utziko dituzte.

Aralar garaile bigarren faseko lehen partidari

Saskibaloa » Hamalau puntuko aldearekin irabazi zion Atcco SS taldeari; defentsan egindako lana izan zen arrazoietako bat.

ERREDAKZIOA

Sailkapeneko lidergoan zegoen Atcco SS talde donostiarrari 14 puntuko aldeaz irabazi zion (71-57) Tolosa-Aralarrek larunbatean. Arrazoi nagusia defentsan egindako lan bikaina izan zen. Denboraldiko azken hamar partida edo finalen sartua da Tolosa Aralar. Pasa den larunbatean jokatu zen lehen finala.

Hasieratik gogo biziz irten ziren etxeok, garbi baitzegoen etxean jokatu dituzten partida guztietan garaile irten behar dutela maila mantentzeko. Honez gain, kanpoan ere garaipean bat baino gehiago lortu behar dira. Intentsitate honen lekuko izan zen defentsan

egindako lana, izan ere, 8 puntutan utzi zituzten donostiarrak lehen hamar minutuen amaieran.

Bigarren laurdenean, defentsa lana ez zen hain ona izan eta erasoan ere ez ziren oso fin ibili. Lau laurdenetik hirutan nagusi izan baziren ere, bigarren hau galdu egin zuten (11-19) eta atsedendira puntu bakarreko aldearekin joan ziren (28-27).

Atsedendititik bueltan, erasoan zertxobait hobetzea lortu zen, ez horrela defentsan eta hiriburukoek aurretik jartzea lortu zuten, lau puntuko errenta arriskutsua lortuz une batzuetan. Gero aurretik jartzea lortu zuten. Pixkanaka aldeak gora egin zuten eta hamar puntuko abantaila lortu bezain pronto iritsi zen donostiaren ezinegona epaileei eginko protestetan. Azkenean, espero zena baino abantaila handiagoa lortu zen.

Azpimarratzekoa ere, Eneko Etxeberriaren debuta tolosarren taldean.

Aurrera-Saiatz pilota eskolakoak Berria Txapelketatik kanpo geratu dira

Pilota » Igande honetan Zazpi-Ilturrikoen txanda izango da; Berria Txapelketako 3. kanporaketa jokatu dute.

ERREDAKZIOA

Aurrera-Saiatz Berria Txapelketatik kanpo geratu da, Uharteko taldearen kontra galdu ondoren. Larunbatean hiru partida jokatu zituzten Urnietan. Nafarrekanporaketako hiru partidak irabazi zituzten. Kadeteetan, 22-11 galdu zuten eskualdekoek. 22-13 gazteetan, eta 22-16 nagusietan. Honen ostean, finalerdietan izango dira nafarrak.

Zazpi-Ilturrikoak igandean

Zazpi-ilturrikoen txanda igande honetan izango da. Hauek Zazpi-Ilturrikoen txanda eskolakoak aurka iriko dira.

Bi partida galdu eta gero asteburu honetako irabazi du Laskorainek

Areto futbola » Elorrio talde bizkaitarra izan zuten aurkari; 7-5 irabazi zuten horitxoek eta honi esker, hirugarren jarraitzen dute.

ERREDAKZIOA

Bi jardunalditan bi porrot pairatu, joan den larunbateko partidak garrantzia zuen Laskoraintzat hirugarren jarraitu nahi bazuen sailkapenean eta «ikaragarri sufrituta» izan bazen ere 7-5 hartu zuen mendean Elorrioko talde bizkaitarra. Azken bolada txarrari amaiera ipiniaz.

Arduradunek azaldukoaren arabera, «neurketa oso gogorra» izan zen, azken emaitzen eraginez

edo, horitxoak behar bezalako arretarik gabe kantxaratu baitziren. Izan ere, hasierako lau minutuetan bizkaitarrek bi gol sartu zituzten etxekoan hutsak aprobetxatuz eta Telletxearen 1-2koaren ondoren 1-4 ere ipini ziren. Bigarren zatian berehala etorri ziren Saldiasen 2-4koa eta Telleriaren 3-4koa, beranduago egin zuten Saldiasen berritua launakoa. Azken minutuan eta berdinketa markagailuan, Alonsok atezain jokalaria kantxaratu zuen garaipenaren bila eta 14 segundoren faltan Gilek 6-5koa sartu zuen.

Garaipena eskafoidea hautsita aste honetan kirofanotik pasa den eta denboraldiari agur esan dion Eneko Yustosi eskaini zion taldeak.

Maila mantentzea gero eta zailago du Tolosak

ERREDAKZIOA

Tolosa CFren denboraldi kaxkarrak ez da amaitu oraindik. Larunbatean San Pedro taldea izan zuten aurkari eta 2-2ko emaitzarekin amaitu zuten jardunaldia. Partida honen ostean, mailaz jaisteko aukera ugarirekin dago taldea, sailkapeneko 19. postuan baita.

Etxean jokatu zuen norgehiagokan. Jardunaldi hau eta gero, mailan

mantentzeko hiru punturen beharrea diru urdinak. Lehen gola tolosarrena izan zen, 31. minutuan Endikak sartu zuen. Horrela amaitu zen lehen zatia. Atsedendia-aren ondoren, zelaira itzultzean, segituan ailegatu zen San Pedrokoen gola. Hortik minutu batzuetara urdinena etorri zen berriz, eta azkenik, partida amaitzear zela, berdinketa etorri zen.

Euskarazko Komunikazio Taldeak arduradunak behar ditu MARKETIN eta KUDEAKETA sailetarako (erref.: o8-ikm)

Eskatzen da:

- Marketin eta Enpresa Kudeaketa arloko unibertsitate ikasketak.
- Kalkulu orriaren eta datu base programa informatikoen ezagutza.
- EGA edo balioak den euskara maila.

Kontuan hartuko da:

- Marketin eta kudeaketa lanetan izandako eskarmentua.
- Talde gidaritza esperientzia.
- Harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.

Kontuan hartuko da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Egun osoko lanpostua.
- Lantokia Andoainean.

Interesa dutenek bidali curriculum, martxoaren 19a baino lehen, erreferentzia zehaztuz, helbide honetara: gizabaliabideak@jarduna.net

Donostian dagoen enpresa batek KOMERTZIALA BEHAR DU Donostia aldean aritzeko

Erreferentzia: O8-IHK

Eskaintzen da:

- Egun erdiko kontratua.
- Soldata interesgarria, finkoa eta komisioek osatua.
- Beste lan komertzialekin bateragarria.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Gida baimena eta autoa izatea.

Curriculum Vitae zehatza bidali, martxoaren 18 baino lehen, gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA. Ez ahaztu erreferentzia zehaztea.



Txalaparta jotzeko aukera izan zuten Institutuko ikasleek. I. GARCIA

Euskal Astea txalaparta eta talo tailerrekin hasi dute

Aiztondo » Ernio-bea Institutuan hainbat ekitaldi antolatu dituzte egunotan, ikasleei zuzenduak, Euskal Astearen baitan.

ERREDAZZIOA

Iaz bezala aurten ere Ernio-bea Institutuko irakasle eta ikasleen artean Euskal Astea antolatu dute egunotan. Atzo eman zieten hasiera eta ostiralean bukatuko dute, ekitaldi nagusi bat eginez Gurea aretoan. Atzokoan, goizean talo tailerra eta arratsaldean txalaparta tailerra egin zituzten.

Gaurkoan ere mugimendu pixkat izango dute Institutuan. Egun osoan zehar dantza tailerra izango dute eta arratsaldean berriro ere txalaparta jotzeko aukera izango dute.

Biharkoan entzule bihurtuko dira. Asisko Urmanetaren hitzaldia emango du euskal umorearen inguruan, DBH3 eta 4ko ikasleei zuzenduta eta Institutuan bertan. Hori lehenengo orduan izango da. 12:00etatik aurrera Koldo Amestoy ipuin kontalariaren emanaldia izango dute DBH 1. eta 2. mailako



Taloak prestatzen ikasi zuten ikasleek atzo goizean zehar. HITZA

ikasleek Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean.

Etzi ere entzuteko aukera izango dute, baina baita galderak egiteko ere. Jon Maia bertsolariak hitzaldia emango du Gurea zinemaren *Apaizak hobeto* Ternuara egindako espediziori buruz, 10.30ean. Arratsaldean txalaparta tailerra egiteko aukera izango dute.

Ostiralean izango da ekitaldi nagusia. Goizean goiz, euskal joku eta jolasak izango dituzte ikasleek

kiroldegian, eta bitartean xake txapelketa izango dute ere. 11:00etan ikasle guztiek tailerran ikasitako *Patxi* dantza egingo dute. Hamaitakoa egin eta gero, 12:00etan jaialdia izango dute Gurea zinemaren. Alde batetik bertsoaioa egingo da, Ernio-bea bertso tailerreko ikasleekin eta Agin Rezola eta Haritz Casabal bertsolariekin. Ekitaldia bukatzeko, euskal dantzak Ernio-beako ikasleek prestatutako dantza emanaldiarekin.

Kontsumo baxuko bonbilak banatuko dituzte dohain bihar

Irura » Kanpaina honen helburua herritarren artean energiaren erabilera arduratsua sustatzea da, antolatzaileen esanetan.

Kontsumo gutxiko bonbila, etxeko energia-aurrezteari buruzko gida eta ibilgailuentzako bioerregiaie buruzko informazio-liburuxka da dohain banatuko den materiala.

Material sorta jasotzeko NANA, pasaporte eta edo gidabaimena aurkeztu behar da. Biztanle bakoitzak bi dokumentazio aurkez ditzake, dokumentu bakoitzeko sorta bat eskuratu ahal izateko.

Antolatzaileek azaltzen dutenez, kanpaina honen helburua energiaren erabilera arduratsua gogoratzea da.

ERREDAZZIOA

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) eta Irurako Udalak antolatutako energia aurreztearen aldeko kanpainaren bidez, herritarrei kontsumo gutxiko bonbillak banatuko zaizkie dohain bihar, 15:30etik 17:00etara, plazan.

Laburrak

Bilera deialdia gaurko herriko artistei

ANOETA » Herriko festetan herriko artisten lanak eta eskulenetako ikastaroko partaideenak ikusgai jarri nahi lituzke Udalak. Horretarako antolatu duen bilera agertzeko deialdia egiten du. Gaur izango da bilera hori, 18:00etan, udaletxean.

Komikigintza eta perkusio ikastaroak Pazko Astean

ANOETA » Udalak komigintza eta perkusio ikastaroak antolatu ditu Pazko Asteako, LH6tik DBH4ra bitartekoei zuzenduta. Komikigintzari dagokionez, martxoaren 26an eta 28an izango da, 17:00etatik 19:00etara. Hozpel kaleko lokalean. 5 eurokoa izango da ikastaroa. Afrikako perkusioari dagokionez, martxoaren 29an izango da, 10:00etatik 13:00etara, kiroldegian. Prezioa ere 5 eurokoa izango da. Bi ikastaroetan murrizpenak izango dituzte Familiugariko kideak eta diru sarrera baxuak dituztenentzat. Izen-ematea udaletxean edo kiroldegian egin daiteke. Ikastaroetan parte hartzeko interesa dutenek hilaren 18an amaitzen zaie izena emateko epea.

Bilera informatiboa Nañarri-Irura Rallysprintari buruz

AMEZKETA » KMK-08 egitasmoaren baitan apirilaren 26an Nañarri-Irura I. Rallysprinta antolatu dute. Alegiatik abiatuko den rallysprint horrek Orendaindik eta Abaltzizketatik pasatu ondoren, Amezetan izango du amaiera. Rallysprinten egutegian puntuagarria izango den proba dugu hau. Proba horrek Amezketa bera eta inguruko herriak bete-betean ukitzen dituenek eta berekin antolaketan handia duenez, jende askoren beharra dute egun horretan. Guztien laguntza «gustura jaso eta eskertuko» dutela azaldu dute KMK-08tik. Horrela, etzi Amezetako li-burutegian, 19:00etan egingo duten bilera informatibora gerturatzeko gonbita luzatzen dute antolatzaileek.

Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik

ZIZURKIL » Udalak trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2008 urteko errolda onartu du. Horrela apirilaren 10era arte dute aukera errolda daudenek zergaren ordainketa egiteko. Helbideratutako ordainagiriak apirilaren 10ean pasako dira kontutik.

Hilberria

ARANTXA EZEIZA JAUREGI

ANDREA

-Goian bego-

Urak dakarrena urak daroa zuk emandakoa gudan gelditzen da



BIDANIAN
2008ko
martxoaren 11n


Elizarango sendiak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

AINARA RODA Asketa abesbatzako zuzendaria

«Abesbatzan neska asko daude, baina mutil gutxi»

Leitza » Ainaro Rodak urrian hartu zuen Leitzako koruaren zuzendaritza, eta abesteko bereziki mutilak behar dituztela azaldu du.

NAIARA GARZIA

Ainara Rodak (Leitza, 1976) Asketa abesbatzan urte asko egin ditu abeslari bezala, eta 2007ko urritik abesbatza zuzentzen du.

Zuen errepertorioa zu zuzendari zarenetik nolakoa da?

Orain artekoa beti euskal kantak abestu digutu, eta orain nik hartu dudanez geroztik, euskal kantekin jarraitzen dugu, baina sartu nahi ditugu gospels, musika latinoamerikarra, gaur egungo musika...

Astean behin elkartzeko zaretze egiteko, ezta?

Bai, ostiraletan biltzen gara, 20:30ean eta 22:00 arte entseatzeko dugu.

Zuen helburua zein da?

Helburua betikoa da. Elkartu, abestu, gozatu eta gero urtean zehar kontzertu finko batzuk izaten ditugu eta honetaz gain urtero bidaia bat egiten saiatzen gara.

Giro aldetik zer nabarmenduko zenuke?

Oso giro polita izaten dugu, gure artean nahiz eta adin ezberdinetako jendea izan. Oso entsegu atseginak izaten dira, lana egiten dugu, baina ongi pasatuz.

Koruko partaide gazteenak eta zaharrenak zenbat urte dituzte?

Zaharrenak 32,3 edo 4 gaude 30 eta 32 urte bitartekoak, eta besteak gazteagoak dira. Gazteenak 14 urte inguru ditu.

Azkeneko kontzertuak non eman dituzte?

Azkenekoa Eguberrietan izan zen, Soraluzen. Eta aurrekoa abenduarren 3an izan zen. Nafarroako Egun delata eta urtero Nafarroako herriren batean abesten dugu, eta Garesen abestu genuen.

Aurrera begira kontzerturen bat lotuta ba al duzue?

Kontzertuak oraingo ez, baina aurten Mendialdeko Koruen Topaketa daukagu, guri antolatzea tokatzen baitzaigu. Azaro erdialdean izanen da, eta beste herri batzuetako koruak etorriko lirake: Bera, Lesaka, Igantzi, Lizarra...

Jende aldetik zer moduz zabilzate?

Orain zerrendetan 24 lagun gaude, eta gehiago izandu gara beste urte batzuetan, baina okerrena da mutilak falta direla. Koru mistoa izanda, desoreka dago. Abesbatzan neska asko daude baina mutil gutxi.



N. GARZIA

txi. Gainera arazoa izaten da mutilak txandetan egiten dutela lan, eta gutxi dira, eta askotan ez dira denak elkartzeko. Horregatik mutilak behar ditugu, neskaren batek ere animatu nahi badu etor dadila, baina bereziki mutilak behar ditugu.

Musikalki zuen abesbatzak ze ezaugarri ditu?

Beti esan izandu digute, beste koru batzuekin abesterakoan, gehienez gu gaztetxoak izandu garenaz, beti esan izan dute ze freskura daukagun. Gure koruak ona dau-

kan beste gauza bat da jende gehienak solfeo badakiela, halere ez da beharrezkoa, edozein etor daiteke abestera, baina jende askok badauka eta kantak ikasteko garaian erraztasun handiagoa dute. Ahots politik ere badaude.

26 urte hainbat ahots landuz eta gozatzuz

Historia » Asketa 1982. urtean sortu zuen Jose Javier Aizkorrek eta urte guzti hauetan atzerrian ere izan dira



Asketa Abesbatzako neska-mutilak, Juan Bautista Irazokirekin. HITZA

ERREDAKZIOA

Asketa abesbatza 1982. urtean sortu zuen Jose Javier Aizkorrek eta bera izan zen lehenengo zuzendaria. Haur abesbatza 1987 arte aritu zen honen zuzendaritzapean.

Herriko musikariek egindako lanari esker abesbatzak aurrera jarraitu zuen hurrengo urtean, 1988an, Juan Bautista Irazokik zuzendari ardura hartu zuen arte. Berak haur abesbatza indartu eta partaide gazteenekin gazte abes-

batza sortu zuen. Geroztik, Asketa Txiki eta Asketa Gazte abesbatza aritzen dira hainbat tokitan. 2007ko urrian Ainaro Roda Azpirozek hartu zuen zuzendaritza.

Gaur egun abesbatzan 30 neska-mutil inguruk hartzen dute parte, eta emaldietan zenbait kantei laguntzeko, instrumentuak jotzen dituzte abesbatzako kideek, hala

nola, txistua, akordeoia edo panderoa.

Emanaldi ugari

Urte hauetan, Asketa abesbatzak Euskal Herriko hainbat lekutan izateaz gain, Katalunian, Polonian eta Parisen ere eskaini ditu emaldiak. Honetaz gain, ETBko saioetan eta udaberri nahiz udazkenean abesbatzen zikloetan ere parte hartu izan du. Urtean zehar

@ Hauteskundeak. Tolosaldean eta Leitzaldean hauteskundeetan izan diren emaitzak ikus ditzakezu gure webgunean. Bai emaitza orokorrak, bai eta herri herrikoak ere, eta aurreko urte-etakoen konparaketak ere bai: www.Tolosaldekohitza.info

antolatzen diren ekitaldietan ere parte hartzea ohikoa da, besteak beste, Kultur Astean, Errege Bezerako kabalagan, olentzeroan eta Ithoetean.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. 665 70 86 35.

LANA

■ **Etxeko lanak.** Emakume euskalduna behar dugu etxeko lanak egin eta edadeko emakumea zaintzeko Alegian. 651 70 42 19.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Anoeta.** Udalak Hizki-Mizki ipuin marraztuen lehiaketa 8 urte-tik gorakoentzat. Lanak ikastolan eta udaletxean utz daitezke. Hilaren 14a da azken eguna horretarako.
- **Asteasu.** Kiropraktikan doktore den Juan Alonsok bizkarrezurraren, nerbio sistemaren eta osasunaren arteko harremanari buruz hitz egingo du 19:00etan udaletxeko zine aretoan.
- **Tolosa.** Amaroako Auzo Elkartearen Merkatu Txikia Nikaraguako Malpaisilloko hezkuntza proiektuaren alde.
- **Tolosa.** Paisaiari buruzko argazki tailerra. Martxoaren 31tik ekainaren 30a bitartean, astelehen eta asteazken arratsaldetan, Iñigo Royoren eskutik. Izena emateko azken eguna hilaren 14a da eta kultur etxean egin behar da.

Kirolak

- **Ibarra.** WingTsun ikastaroa apirilaren 2tik ekainaren 23ra, astelehen eta asteazkenetan 20:30ean. Izen-ematea, kiroldegian 84 eurotan (ez bazkideek 117).
- **Tolosa.** Larrea-Arantzazu mendi irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak igandera, Aumategi-gaina (1.191), Gaboño (1.175), Mal-korra (1.242), Pinpil (1.279) eta Gasteluitz (927) mendiak igoz. Izen-ematea, elkartearen (943 652789).
- **Tolosa.** Andorrara mendi irteera antolatuta du Aste Santurako Oargik, martxoaren 19tik 24, Coma Pedrosa (2.942 m) eta Pic Port Vell (2.655 m) mendiak igotzeko. Izen-ematea, elkartearen.

Erakusketak

- **Tolosa.** Patxi Tena tolosarra urtero Kubara joaten da eta bertatik, arteak ikasten dituzten ikasleen lanak ekartzen ditu: asmoa haien laguntzea da, materiala utziz, beraien margolanak salduz... Ikusgai hilabete osoan zehar.
- **Tolosa.** Tomas Hernandezen Mendizabal artista donostiarraren erakusketa ikusgai dago Aranburu Jauregian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.

Antzerkia, afaria eta irteera



TOLOSALDEA ■ Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekitaldi izan dira azken egunotan. Horrela, Albizturren EBEL elkarteak *Baserriz baserri* antzerkia antzetzuta zuten (goian ezkerren). Bestalde, Ugarten aurtengoan 20 emakume bildu ziren afaria egiteko (goian eskubian). Horrez gain, Zizurkilgo 83 emakumek irteera egin zuten, urtero bezala. Aurtengoan Miarrizteko Txokolatearen Museora ikustaldia egin zuten eta, ondoren, bazkaria eta musika Baionako Trinketearen. HITZA



A Agurrak



Zorionak!

Irene (Tolosa). Herenegun 2 urte. Amatzok atzo. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.

NEURE BURUA NIK NEUK GIDATZEKO PREST!

WWW.MONGRAGON.EDU.PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

martxoaren 12an

herri informazioaren leihoa zabaltzera goaz